Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Arantzazu Loidi Garitano

Aretxabaleta, Gipuzkoa (1967)



Aurkibidea

Biografia



Kaletarra den arren, gurasoak Bergarako San Kristobal auzokoak zituen, baserritarrak. Oholtzara igo zen lehenengotako neska izan zen. Euskal Herriko lehenengo bertso eskolako ikasleetako bat zen, Almen ikastolaren bueltan sortu zena. Ikasketaz kazetaria eta itzultzailea, hainbat lanetan ibili da eta azken urteetan garapen pertsonaleko formatzailea da. Batez ere bertsolaritzarekin lotuta elkarrizketatu genuen, EIMA 2.0. proiekturako.

Zintak

ARE-087

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2024-05-07
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bertsozaletasuna familiatik datorkio

- **Erref**: ARE-087/002
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:01:02. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsozaletasuna familiatik datorkio, gehienbat Bergarako baserriko osaba baten bitartez eta irratian entzunda.

2. Almen bertso eskola

- **Erref**: ARE-087/004
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:01:41. **Bukatu**: 00:03:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Almen bertso eskolaren sorrerako ikaslea izan zen. Asko baziren ere, gaitasun handiagoa zutenak atera egin zituzten, talde txikiagioetan jarduteko. Neska eta mutilak elkarrekin bazeuden ere, txapelketetara hasten joan zirenean, neska bakarra zen Arantzazu.

3. Bertsozaletasuna gutxi Aretxabaletan

- **Erref**: ARE-087/005
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:03:23. **Bukatu**: 00:05:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Haurra zenean, bertsolaritza urrutiko zerbait moduan ikusten zuten, irratian entzuten zutelako. Baina bertso eskolan hastea berritasuna izan zen. Aretxabaletan ez zegoen aparteko bertsozaletasunik.

4. Bertsozaletasuna, baserri giroarekin lotuta

- **Erref**: ARE-087/006
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:06:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aretxabaletan, bertsozaletasuna baserri giroarekin lotutako zerbait zen. Bertso eskolan, gai tradizionalak jorratzen ziren eta arrotza izatera heldu zitekeen.

5. Plazara atera arte ez zen konturatu bertsolaritza maskulinoa zela

- **Erref**: ARE-087/007
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:06:39. **Bukatu**: 00:08:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertso eskola lagun-arteko jolas bat bezala hasi zuen eta plazan bertsotan eta txapelketetan parte hartzen hasi zen arte, ez zen konturatu gizonen mundu bat zela hura.

6. Bertsolari emakumea izateagatik entzundakoak

- **Erref**: ARE-087/008
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:08:34. **Bukatu**: 00:12:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaria neska zelako egiten zizkioten komentarioak: ez zuela irabaziko, hots finegia zuela... Leku batzuetara, neska zelako bakarrik gonbidatzen zuten, ez bertsolari ona zelako. Paternalismoa. Gauzak asko aldatu dira bertso munduan 50 urtetan.

7. Emakumeek plazan ez zuten bertsotan egiten, baina etxean bai

- **Erref**: ARE-087/009
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:12:23. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
70. hamarkadako emakumearen papera bertsolaritzan. Bertso eskoletan neskak egon arren, plazan ez zen emakumerik ikusten. Emakumeek etxe giroan bakarrik egiten zuten bertsotan, leku intimoetan Inoiz ez plazan edo txapelketetan.

8. Emakume izategatik kritikatuak

- **Erref**: ARE-087/010
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:16:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai batean, edozein emakume publikoan abesten, dantzatzen, instrumentu bat jotzen... agertzen bazen, sekulakoak esaten zizkioten. Bertsoak botatzea ez omen zen femeninoa.

9. Bertso-txapelketetako lehenengo neska

- **Erref**: ARE-087/011
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:16:14. **Bukatu**: 00:19:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
80. hamarkadako eskola-arteko bertso txapelketetan parte hartu zuen lehenengo neska izan zen Arantzazu. Bertso-eskolako bere taldean, normaltasunez hartzen zen bera neska izatea, taldeko kide bat gehiago zen.

10. Garai bateko eta gaur egungo gaiak bertsolaritzan

- **Erref**: ARE-087/012
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:19:39. **Bukatu**: 00:22:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsoetako gaiak helduentzako ziren eta askotan ez zuten jakiten nola jo. Ez da gogoratzen gai berezirik jartzen ziotenik emakumea izateagatik bakarrik. Garai bateko eta gaur egungo gaiak asko aldatu dira.

11. Eskola -arteko txapelketako kuadrila

- **Erref**: ARE-087/014
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:24:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Herri-txapelketetan hasi zirenean, jende asko ezagutu zuten. Beste lekuetako gazte bertsozaleak ezagutu zituzten eta kuadrila bat sortu zuten.

12. Gipuzkoako eskola-arteko txapelduna 1985ean

- **Erref**: ARE-087/015
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:24:04. **Bukatu**: 00:27:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1985. urtean, Gipuzkoako eskola-arteko txapelketa irabazi zuen Arantzazuk eta herriz-herri kantatzen hasi ziren. Autobusez, kotxez, gurasoekin... joaten ziren. Beraientzat guztiz ezberdina zen Aretxabaletatik Gipuzkoako herri txikietara joatea.

13. Perfekzionismoa bertsolaritzan

- **Erref**: ARE-087/016
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:27:33. **Bukatu**: 00:29:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Oso perfekzionista izan da beti eta bertsoa beti ondo egin behar zuen. Bertsolarien artean perfekzionismo asko ikusi da beti.

14. Lagunen arteko lehia

- **Erref**: ARE-087/018
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:30:15. **Bukatu**: 00:32:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Oso zorrotza izan da bere buruarekin, lagunen artean lehiatzen zutelako. Herriz-herri ibiltze ziren, antzokietan, plazan, kamioien gainean... kantatzen.

15. Plazatik erretiratzen eta epaile moduan jarraitzen

- **Erref**: ARE-087/019
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:32:53. **Bukatu**: 00:35:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1991an Gipuzkoako bertso txapelketan parte hartu zuen. Plazetatik zergatik eta nola erretiratu zen. Orduan, bertso-eskolan umeekin jarduten hasi zen eta gai-jartzaile eta epaile moduan hasi zen.

16. Bertso-eskolako epailearen ikuspegia

- **Erref**: ARE-087/020
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:35:41. **Bukatu**: 00:37:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Haurrekin epaile moduan hasi zenean, ume batzuk sufritzen ikusten zituen eta beraien egoerara moldatu behar zuela ikusi zuen, exigentzia handirik gabe eta umeek disfrutatzeko.

17. Gai-jartzailearen lana

- **Erref**: ARE-087/021
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:37:39. **Bukatu**: 00:38:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gai-jartzaile bezala ibili da Arantzazu.

18. Emakume izateagatik ezberdin tratatzen zioten

- **Erref**: ARE-087/023
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:38:35. **Bukatu**: 00:41:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
1987an eman zuen elkarrizketa batean, emakume izateagatik beste tratu bat ematen ziotela aipatu zuen. Loreontzi bat ez zela eta bertsolaria zela demostratu behar zuen. Bere buruaren gaineko exigentzia altuagoa zen.

19. Emakume bezala, oholtza gainean nola jantzi

- **Erref**: ARE-087/024
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:41:45. **Bukatu**: 00:43:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Oholtzan, neutro janzteko joera zuen, besteengandik ez nabarmentzeko. Hala eta guztiz, femeninoegia zela ere esaten zioten. Gaur egun egoera guztiz aldatu da.

20. Umorea eta emakumea bertsolaritzan

- **Erref**: ARE-087/025
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:43:27. **Bukatu**: 00:44:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaritza umorearekin lotu izan da, baina gizonezkoen kontua izan da. Emakumea umoretsua bazen, lotsagabearen etiketa jartzen zitzaion. Gaur egun ez dago bereizketarik.

21. Garai bateko txiste mingarriak bertsolaritzan

- **Erref**: ARE-087/026
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:44:51. **Bukatu**: 00:47:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai batean, bertsoetan bertsolarien arteko burlak egiten ziren, fisikoagatik, emakumea izateagatik, "mutil zaharra" izateagatik, txiste matxistak eta mingarriak... Arantzazuk horrelako bertsoak serio erantzunez mozten zituen.

22. Gaur egungo bertsolarien ekarpena miresgarria da

- **Erref**: ARE-087/028
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 00:48:14. **Bukatu**: 00:48:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Gaur egun, miresgarria da bertsolarien ekarpena ikuspegi ezberdinetatik: sormen-mailan, pentsamendu-mailan, irudimen-mailan, hizkuntza-mailan...

23. Emakume bertsolariak I

- **Erref**: ARE-087/029
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:51:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Arantzazuren ostean heldu ziren emakume bertsolariak: Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegi... Eskolen-arteko txapelketek kantera moduko bat sortzen dute eta gaur egun dauden bertsolari handi asko ikusi zituen Arantzazuk umetan.

24. Bertso-eskolen eragina

- **Erref**: ARE-087/030
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:51:07. **Bukatu**: 00:54:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertso-eskolen garrantzia, emakumea bertsolaritzara hurbiltzeko. Bertso-paperak. Normalean, bertso-eskolan neska asko egoten dira baina gero ez askok ez dute jarraitzen. Gaiak, entzulegoa, epailea... askoz gazteagoa da gaur egun, garai batekoa baino. Emakume gehiago ere badaude.

25. Gaur egungo bertsolaritzaren kalitatea

- **Erref**: ARE-087/032
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:56:24. **Bukatu**: 00:59:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
50 urtetik gaur egunera, bertsolaritzaren kalitatea asko aldatu da eta emakumearen papera guztiz normalizatuta dago. Txapeldunak.

26. Bertsolaritzan erreferente

- **Erref**: ARE-087/033
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:59:04. **Bukatu**: 01:00:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Arantzazu ez du bere burua bertsolaritzaren erreferente bezala sentitzen, baina askotan esan diote.

27. Emakumeak eta bertso-paperak

- **Erref**: ARE-087/037
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:02:58. **Bukatu**: 01:04:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai batean, etxean egiten zen bertsotan eta bertso-paperetan jaso ziren. Ziurrenik horietako asko emakumeek sortutakoak izango ziren, nahiz eta gero gizonen batek sinatua izan.

28. Aurretik ere bazeuden emakume bertsolariak

- **Erref**: ARE-087/038
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:04:10. **Bukatu**: 01:06:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Lore-jokoetan Ipar Euskal Herrian bertsotan ibili ziren emakumeen presentzia ez da behar bezala nabarmentzen eta txapeldunak izan zirelako heldu dira beraien izenak gaur egunera. Espainiako moja batek Ama Birjinaren bizitzari buruz idatzitako liburua, bertsotan.

29. Elizkizunetako bertso-paperak, emakumeek idatzita

- **Erref**: ARE-087/039
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:06:26. **Bukatu**: 01:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bataioetan, jaunartzeetan eta familiarteko ospakizunetan, emakumeei deitzen zitzaien bertsoak kantatzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com